

Guk geron iritzira erabaki degu, jakintizeneri buruzko auzia. Bemaiote sail ontan bertan besteek berena. Denboran erabaki zuzen eta betea eman dezaiogun, argi batek eta argi besteak eztabaidaren bidez. Ez al litzaiguke bizi-garri ta argi-iturri gertatuko eztabaida (polémica) apur bat batasunera bidean? Baña, bete batsuna elburu degularik.

IV. GAÑONTZEKOA :

Aitatu ez ditugun lanak, ez ditugu iñolaz ere gutxietsi, izenez ta bakoizka gorai patu ez baldin baditugu ere. Bijoakizue gure txalorik beroena, txalo-zaratarik aune diena "Euskaltzale-batzarreko" aien antzekoa.

Gai atsegiñak arrotu dituzute, gai berri-berriak: "Mingabeko erditza". Egundaño euskeraz arrotu gabekoak: "Izakerak", "Izaten aburua" ta arrigarria! "Aita Santuaren Itza" ere lenbizikoz.

Bijoakizue, oinbestez, gure zorionik goriena!

LAZKAO'ko beneditarrak :

"....YAKIN aldizkariak berriz gure iritzi motela jakin nai al dezute? Obeagoa ezin. Euskera baratzeke apaiz ta praile gaien landara berri au ikusi ta gure begiak bete-tzea bat bateko izan zan. Eun orriko landara gañera! (Zugaitz dirudi) ta bai orri me, legun eta eder. Zer ote eguzkiak dirdai gozoz loratuko duanean?

Jan-tokian irakurri genun asieratik bukaeraño; jan-tokian miaztu genun euskal-apaiz gaien ezti gozoa. Ura poza, euskeraren aldeko ekiñaldi txalogarri auk ikustean! Euskalgurdi zarra teologi ta filosofi soro ta aldapa gaiztcetan ere ez dijoala motel bera! Ezagun da bai idi gazte ta burru-kalariak daramateka. Aurrera, jarrai ortan euskal-apaiz gai guziok. Ta batez ere, zuek, Arantzazu'ko gazteok, gure artean trebe ta bizkorrenak bai zaituegu. Zuek izan zerate gure akullu ta ezten. Eta etzaigu lotsakizun ori aitortzea, poz baño.

YAKIN aldizkariak gure iritzi beti apaiz eta praile gaien aldizkari bear du izan, bai gaur eta bai biar;

beti bizi, asmontzi, arroxka, jostalari, burrukalari, bere egille gazteen antzo. Bere orritan idatzi dezatela bakarrik apaiz eta praile ikasleek eta baita ere apaiz idazle berriak. Orrela euskal-apaiz gai gazteok izango degu nun uztu gure buru-biotzen izketa-miñak, amaika gogoaldi, biotzkada, amets... ta ori dena bildurrik gabe, lotsik gabe.

Bear degu noski euskal-apaiz eta praileok elizgaietaz aldizkari jator bat, inguruko errietako "L'ami du Clergé, Ilustración del Clero, Sal Terrae, Incunable," ta orrelakoen tankerakoa, bañan ori ezta ikasleen egitekoa, ikasiena baño. Bitartean gu gazteok, lenik euskal-arnasez bete ditzagun gure birrikak eta ondoren edotariko jakintz-soro ta aldapaetan bide egin dezaiogun euskal-gurdi zaarrari, euskera gure ele maiteari. Erderaz edaten ari geran jakintz-ur guzi ori, euskal-ardoan biurtu dezagun. Ardo berri orren ontzi, aldiz, YAKIN izango degu.

Baña ez degu uste YAKIN'ek erlijio-gaietaz bakarrik jardun bear lukenik; zergati ez filosofi ta teologiko jakintz gai guzietaz? Gazteiz'en lengo apaiz gai trebeek ateratzen ziguten KARDABERAZ tankerara? Erljio-intzaz busti gabeko gazteon baratzako loratxoak ez al dute argitara edo eguzkitara irten bearrik, itzalean ximeldu bear al zaizkigu?

Eta gañera ez al genjoke aldizkari oni izena aldatuko, bai JAKIN-ZALE, izendatuz obeto adieraztearren bere egille gazteen tankera ta joera; edo bai KARDABERAZ Gazteizko apaiz gaien asmokide gerala agertzearren? Esandakoen bide bertatik jarraituz, uste genuke YAKIN'ek azalean daraman "teologialarien jardunak" en orde, "apaiz ta praile gaien lanak" bear lukela, bestela pilosopilariak aserre izango ba'ditugu.

"Saski-naski"n ere emakume batzuei eragiten diezute beren lan ederrak azaltzeko; ez ote litzake obe lan oiek jardunean edo "Elkar-izketa"n jaso, aldizkari ontan apaiz gai bakarrak idatzi dezaten? Aldizkariaren sailketa ederki deritzaigu.

Besterik ez. Agur Jakinzale guzick, Agur Arantzazu'ko Amaren seme jatorrak. Zer derizkiozute?